andoaINDARRA euskaraz

Andoaingo Udala

# PARKETARRAK egitasmoa maiatzean zehar Goikoplazan eta Zumea plazan

- **GOIKOPLAZAN: maiatzaren 5, 12, 19 eta 26an**
- **ZUMEA PLAZAN: maiatzaren 6, 13, 20 eta 27an.**
- **3 eta 5 urte bitartekoak 17:15etik 18:15era (beti ere heldu baten laguntzaz)**
- **6 eta 9 urte bitartekoak 18:15etik 19:15era**

Andoaingo Udalak PARKETARRAK izeneko egitasmoa jarriko du martxan udaberri honetan ere.

Egitasmoaren ardatzak, honako hiru dira:

- Familiei eta haurrei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea
- Familiak eta haurrak euskararen inguruan biltzeko gunea sortzea
- Auzo eta herrietako jolasguneetan euskararen presentzia areagotzea

Horretarako, maiatzak 5, 6, 12, 13, 19, 20, 26 eta 27 egunetan, Hezten enpresako jolas dinamizatzaileen laguntzaz, Goikoplazan (astearteetan) eta Zumea plazan (asteazkenetan) burutuko dira programa hauen saioak:

**ZABU ZIBU**: 17:15-18:15era; **3 eta 5 urte** bitarteko haurrak dituzten **familientzat**. Helburua euskaraz jolastu ahal izateko tresnak eskaintzea da, beraz, **behar beharrezkoa da haurrak guraso edo helduren batekin etortzea eta jolastea.**

**TXIRRINTXON**: 18:15-19:15era; **6 eta 9 urte** bitarteko haurrentzat.

Aurretik ez da izena eman behar, nahikoa da bertaratzea.

**Andoain, 2026ko apirilaren 20a**

# Parketarrak

Egunik onenak,
elkarrekin euskaraz jolasean



# ANDOAIN

Adinaren arabera antolatuko dira jolasak:

**Zabu-Zibu** (Helduekin) 3-5 urte: 17:15
**Txirrintxon** 6-9 urte: 18:15

| ASTEARTETAN | ASTEAZKENETAN |
|---|---|
| Maiatzak 5, 12, 19 eta 26 | Maiatzak 6, 13, 20 eta 27 |
| **Goikoplazan** | **Zumea plazan** |

andoaINDARRA euskaraz

ANDOAINGO UDALA

hezten
aisialdi euskaltzalea